

Usurbilgo Udala

2021EKO MARTXOAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez da bertaratu: Aroa Etxeburua Ugartemendia.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko martxoaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2020KO AZAROAREN 26KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2020ko azaroaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO OTSAILAREN 22TIK MARTXOAREN 18RA (2021/124-2021/185).

Alkatetzak 2021eko otsailaren 22tik martxoaren 18ra bitartean (2021/124-2021/185) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDUA.

Alkateak adierazi du administrazio elektronikoaren oinarrizko zerbitzuak, administrazioen arteko informazio trukaketa, etab. arautzen direla hitzarmen honetan, orain arte egiten ari ziren hori normalizatuz hitzarmen honen bidez.

Idazkariak gaineratu du administrazio desberdinek, bai Aldundiak, bai Jaurlaritzak eta bai Estatukoak Jaurlaritzaren bitartez, datuak partekatzeko hitzarmen bat dela.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.21/2021-0040

Administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko helburuarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek honako bi hitzarmen sinatu zituen:


- Estatuko Administrazio Orokorrekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzaren hitzarmena, 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua izan zena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzaren hitzarmena, 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua izan zena.

Orain, administrazio elektronikoaren zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak erabili ahal izateko Usurbilgo Udalak aipatutako hitzarmenekiko atxikimendua adierazi behar du.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko martxoaren 16an egindako bilkuran, aho batez (aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga, Josune Urkola eta Patxi Suarez) egindako irizpina kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENENGOA: Administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek sinatutako lankidetzaren hitzarmenekiko atxikimendu protokoloa sinatzea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-83 (OROITZAPENA) EREMUKO ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Alkateak adierazi du hurrengo bi puntuak Hirigintza batzordetik datozela eta aurretik irekita dauden prozeduren behin betiko onarpena ematea dela, ez baita alegaziorik aurkeztu.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena azertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2020-0073

AURREKARIAK


Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) Eremuko Antolamendu Xehatuaren Aldaketarako dokumentua osatua aurkeztu dute OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) JABEKIDEEK (Ignacio Icutza Aizpurua, Imanol Ayestaran Aranburu, M^a Jesus Aranburu Alcorta eta Manuel M^a Ayestaran Ayestaran). Dokumentua Jose Miguel Toledo Etxepare eta Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoek idatzi dute.

ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) JABEKIDEEK sustaturik, Jose Miguel Toledo Etxepare eta Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoek prestatutako dokumentuan biltzen da Aldaketaren xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honakoa dio memorian:

Dokumentu honen sarreran aipatu den bezala, hemen aurkezten den arau aldaketa puntual honek, Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-83 (A/TA) "OROITZAPENA" esparru urbanistikoaren EZAUGARRIEN FITXAREN (TESTUAK) edukiari eragiten dio soilik; zehazki, eremuan ahalbidetutako etxebizitzaren gehienezko kopuruari dagokionean



Usurbilgo Udala

Ezaugarrien fitxetan ezarritako gehienezko etxebizitza kopuruak ez du, 37. Artikuluan zehazten denez, egiturazko antolamenduaren izaera izango, baizik eta antolamendu xehatuarena

Adostutako aldaketa bat dator "Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko" ekainaren 3ko 105/200 Dekretuko 30. Artikuluekin, Antolamendu xehaturen aldaketari buruzkoarekin. Bertan honakoa esaten da:

"Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilita aldatu ahal izango da. Izapideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. Artikuluetan araututakoa izango da."

Horregatik, behin 37. Artikuluaren Aldaketa onartuta "EZAUGARRIEN FITXA"-ren edukia A-83 (A/TA) "OROITZAPENA" esparruaren egungo eraikuntza eta erabilera baldintzetara egokitzeko eta estalkipean bi etxebizitza berri atontzeko borondateari erantzuteko helburuarekin, goi solairuetan aurreikusitako gehienezko etxebizitza kopurua (4) aldatzea proposatzen da, 6 etxebizitzatan ezarriz.


INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN PROZEDURA

Usurbilgo Udalak, 2020ko otsailaren 21ean, Antolamendu Xehatuaren aldaketaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedurapean burutu behar den ala ez galdetu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiari. Honek 2020ko martxoaren 6an helarazi zuen bere txostena. Hitzez hitz honela dio:

2020ko otsailaren 26an Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamento honetan sartu da Usurbilgo Udalaren kontsulta bat Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak zehaztu dezan A-83 "Oroltzapena" eremuaren antolamendu xehatuari buruzko Usurbilgo Arau Subsidiarioen testu bateginaren balizko aldaketa batek ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduretako bat bete behar duen indarrean dagoen araudilaren arabera.

Planteatutako aldaketaren helburua A-83 eremuko (bizitegi-izaerako hiri-lurzoru finkatua) hirigintza-fitxa aldatzea da, gaur egun existitzen den eraikinean baimendutako gehieneko etxebizitza-kopurua (goiko solairuetan) 4 unitatetik 6ra igotzea ahalbidetzeko. Aldaketak ez dakar inolako aldaketarik mugaketan, ez eremuaren azalera, ez eraikigarritasunean, ez eta eraikuntzaren okupazio-bolumenean ere, eta horren garapena zuzeneko exekuzioaren bidez egikarituko da.

Bidalitako dokumentazioa ikusi eta gero, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera, aurreikusten da planteatutako proposamenean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko 21/2013 Legeko 6.1 eta 6.2 artikuluetan jasotako betekizun edo baldintzetako bat ere ez duela betetzen aldaketak, ez eta 211/2012 Dekretuan jasotakoak ere, eta ondorio horiek ez direla sortuko ere 21/2013 Legeko V. Eranskinean ezarritako ebaluatze irizpideak kontuan hartu eta aplikatu eta gero. Beraz, ulertzen da



Usurbilgo Udala

A-83 "Oroitzapena" eremuaren antolamendu xehatuari buruzko Usurbilgo Arau Subsidiarioen testu bateginaren aldaketak aipatutako arauetan ezarritako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bat ere ez zuela jarraitu beharko .

Azkenean aipatzea erabaki hau Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren ezinbesteko edo lotesleko erabakitzat ezin dela hartu, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein irizpideren menpean gelditzen dela.

Donostia, 2020 martxoaren 4a
INGURUMENeko ZUZENDARI NAGUSIA
Monica Pedreira Lanchas

HASIERAKO ONESPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA

Hala, 2020ko apirilaren 30ean, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri sustatzaileei ematea honakoa jakinaraziz: *"Aldaketa-espedientea tramitatzeko prozeduran edo lanak gauzatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuren bat egiaztatzen bada, Usurbilgo Udalak sustatzaileei eskatuko die ingurumen-prozedura betetzea eta/edo beharrezko eta bidezko ikusten diren ingurumen-neurriak hartzea"*.


Hartutako erabakiaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- El Diario Vasco: 2020-06-04
- Gara: 2020-06-04
- Berria: 2020-06-04
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (91. zenbakia): 2020-05-18

ALEGAZIOA

Jendaurreko epealdian, ez da inolako alegazioarik aurkeztu.

KOSTALDEAREN ETA ITSASOKO ZUZENDARITZA OROKORRAREN TXOSTENA



Usurbilgo Udala

Trantsizio ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioak, Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren ALDEKO txostena helarazi du. Hitzez hitz honela dio:

REF: PLA01/20/20/0010

ASUNTO: MODIFICACION PUNTUAL DEL TEXTO REFUNDIDO DE LAS NN.SS: DE USURBIL REFERIDA A LA ORDENACIÓN PORMENORIZADA DEL ÁREA A-83 (A/TA) "OROITZAPENA" DE USURBIL (GUIPUZCOA)

1.- OBJETO DEL INFORME

El Ayuntamiento de Usurbil, remite a esta Dirección General, a través del Servicio Provincial de Costas de Guipúzcoa, el expediente arriba referenciado.

La documentación aportada, se presenta diligenciada, haciendo contar en el Oficio de Remisión que se trata de un documento de aprobación definitiva, y se compone de Memoria y Anejos.

Hay que señalar que no consta en este Departamento que el documento fuera remitido previamente a su aprobación inicial para emitir el informe que dispone el artículo 117.1 de la Ley de Costas. Se recuerda que de acuerdo con lo regulado en el artículo 117.1 de la Ley 2211988, de 28 de julio, de Costas (en adelante Ley de Costas), "en la tramitación de todo planeamiento territorial y urbanístico que ordene el litoral, el órgano competente, para su aprobación inicial, deberá enviar, con anterioridad a dicha aprobación, el contenido del proyecto". Lo que se pone de manifiesto por el posible vicio procedimental.


No obstante lo anterior, visto el estado de tramitación, sobre la documentación aportada se emite el informe que disponen los artículos 112.a) y 117.2 de la Ley de Costas y los artículos 222 y 227.2 del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre por el que se prueba el Reglamento General de Costas (en adelante RGC).

Según se indica en la documentación, el objeto de la Modificación Puntual es adecuar el contenido de la "FICHA DE CARACTERÍSTICAS" a las condiciones actuales de edificación y uso del ámbito A-83 (A/TA) "OROITZAPENA" una vez aprobada la modificación del artículo 37, así como la voluntad de habilitar 2 nuevas viviendas en la planta bajo cubierta, se propone modificar el número de viviendas en plantas altas previsto anteriormente (4UD) estableciendo el número de 6 UD. Esta distribución de dos nuevas viviendas se realiza sin ningún incremento de edificabilidad ni alteraciones en el perfil de la cubierta .

2.- CONSIDERACIONES

El análisis y estudio de la documentación aportada de la Modificación Puntual y los datos obrantes en este Departamento, permiten hacer las siguientes consideraciones desde el punto de vista del borde literal:

1. El ámbito objeto de Modificación Puntual se encuentra afectado por el expediente de deslinde DL-41-GUI, aprobado por O.M. de 13 de enero de 1999.
2. En el Plano 2 se representan de forma sensiblemente correcta las líneas de ribera del mar, dominio público marítimo-terrestre y sus servidumbres de tránsito y protección, así como la zona de influencia.



Usurbilgo Udala

Todo ello con independencia de considerar que, ante cualquier desajuste en la representación de las citadas líneas, prevalecerán los datos de los planos de deslinde sobre los reflejados en el planeamiento.

3. El ámbito 8.3 Oroitzapena se encuentra fuera del dominio público marítimo-terrestre y de sus servidumbres de tránsito y protección, estando totalmente afectado por la zona de influencia. A este respecto, al no existir variación de edificabilidad ni de volumetría *a priori* se daría cumplimiento al artículo 30 de la Ley de Costas, el cual indica que las construcciones habrán de adaptarse a lo establecido en la legislación urbanística, debiendo evitar la formación de pantallas arquitectónicas o acumulación de volúmenes, de tal manera que la disposición y altura de las edificaciones propuestas se realice de forma armónica con el entorno, sin limitar el campo visual ni desfigurar la perspectiva del borde literal.

3. CONCLUSIONES

Visto lo anterior, esta Dirección General informa favorablemente la Modificación Puntual del Texto Refundido de las NN.SS. de Usurbil referida a la ordenación pormenorizada del Área A-83 (A/TA) "Oroitzapena" de Usurbil.

LA DIRECTORA GENERAL
Ana María Oñoro Valenciano
4 de Febrero de 2021

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2021eko martxoaren 11ean egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA


LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA **behin betikoz onartzea**

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA behin betiko onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-29 (ZELAI HANDI) EREMUKO XEHETASUN-AZTERKETAREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2016-0040

JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA aurkeztu zuen zegokion izapidetzea izan zezan.

Xehetasun-Azterketaren ALDAKETAK honako helburua du: URA ur agentziaren eta Confederación Hidrográfica del Cantábrico erakundearen txostenek adierazitakoa betetzea da.

Alkatetzak 2020ko martxoaren 5ean, udal teknikarien txostenak kontutan izanik, 2020/0169 zenbakidun dekretuaren bidez, zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketaren aldaketa hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Sustatzaileari, JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresari, erabaki honen jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontaktzen hasita, 15 laneguneko epean, Xehetasun-Azterketaren aldaketa bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) aurkezteko agintzea. Xehetasun-Azterketa ez da behin betikoz onartuko aurreko baldintza bete bitartean.

HIRUGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunetz, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketaren aldaketa behin betikoz onartu aurretik UR agentziaren aldeko txostena jaso beharko da.

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunetz ondoko iragarkia argitaratuz:



Usurbilgo Udala

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (50. zenbakia): 2020-03-13
- BERRIA: 2020-03-10
- GARA: 2020-03-09
- EL DIARIO VASCO: 2020-03-10

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.

Xehetasun-Azterketaren Aldaketa aztertu ostean, *Confederación Hidrográfica del Cantábrico* erakundeko presidentek, Manuel Gutiérrez García jaunak, 2020ko urriaren 29an ALDEKO informea eman zuen.

Bestetik, URA ur agentziak ALDEKO txostena helarazi zuen 2020ko azaroaren 9an. Ondorioetan honakoa dio hitzez hitz: “... *Agentzia honetatik aurkeztu den USURBILGO (GIPUZKOA) UDALERRIAN, ORIA IBAIAREN ESKUIN ERTZEKO UREN POLIZI GUNEAN, A-29 “ZELAI HANDI” EREMUKO XEHETASUN AZTERKETA MOLDATUA-ri ALDEKO txostena egiten zaio.*”

JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresak bere aldetik, hasierako onarpenean jarritako baldintzak betetze aldera, Xehetasun-Azterketa bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) eta teknikari gaituaren aitortpena aurkeztu ditu.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, Xehetasun-Azterketaren aldaketa behin betikoz onar daitekeela adierazi du.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2021eko martxoaren 11ean egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETAREN behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresari ematea, Xehetasun-Azterketaren ALDAKETAREN izapidetze gastuak helaraziz.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- USURBILGO UDALEKO HAUR ESKOLA ZERBITZUAREN EMAKIDA.

Beñat Larrañagak puntu honetan ez du parte hartu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 23. artikulua baitan.

Alkateak azalpenak eman ditu. Hasteko, esleipen garrantzitsu batetaz hitz egiten ari direla adierazi du, inbertsio inportante batetaz eta udal zerbitzu publiko inportante batetaz.

Haur Eskola lehen aldiz 2008an 12 urtetarako esleitu zela eta iazko ekaineko plenoan esleipen horri urtebeteko luzapena ematea onartu zutela esan du. Beraz, orain esleipen berri bat egitea tokatzen dela gaineratu du.

Orain arte indarrean egon den esleipenarekin alderatuz, aldaketa garrantzitsu batzuk badaudela esan du. Batetik, esleipenaren iraupenari dagokionez, aurrekoa 12 urtetarako izan zen eta oraingoa 3 urterako gehi beste bi urtez luzagarri izatea proposatzen da, hau da, gehienez 5 urterako. Egoera aldagarri honetan 12 urterako izatea gehiegi iruditzen zitzaizela esan du.

Beste aldaketa bat izan dela dio kriterio ekonomikoak nola zehaztu diren. Xabier Olano udal kontuhartzaileak txosten ekonomiko bat egin zuela dio urte guzti hauetako balorazio ekonomiko bat eginez eta ondorioztatu du bideragarria izan dela, tartean Covidak markatutako urte berezia egon bada ere.

Jarraitu du esanez bideragarria bai baina goraberatsua ere izan dela erabiltzaile kopuruari begiratuta. Urte batzuetan 140 haur izatera iritsi zirela eta gaur egun 38 haur daudela zehaztu du. Hurrengo urteetarako perspektiba beharrezko joerak jarraitzea dela gaineratu du. Hau ikusita, batetik, iraupena 5 urtetara jeistea erabaki zuten eta, bestetik, udalak egin beharreko ekarpen ekonomikoa ere moldakorra izatea haur kopuruaren arabera:

- 1.300 €/ikasleko/urteko, ikasleak 29 edo gutxiago badira.
- 1.275 €/ikasleko/urteko, ikasleak 30 - 33 bitartean (biak barne) badira.
- 1.250 €/ikasleko/urteko, ikasleak 34 - 36 bitartean (biak barne) badira.
- 1.225 €/ikasleko/urteko, ikasleak 37 - 39 bitartean (biak barne) badira.
- 1.200 €/ikasleko/urteko, ikasleak 40 - 44 bitartean (biak barne) badira.
- 1.175 €/ikasleko/urteko, ikasleak 45 - 47 bitartean (biak barne) badira.
- 1.150 €/ikasleko/urteko, ikasleak 48 - 50 bitartean (biak barne) badira.
- 1.125 €/ikasleko/urteko, ikasleak 51 - 54 bitartean (biak barne) badira.



Usurbilgo Udala

- 1.100 €/ikasleko/urteko, ikasleak 55 edo gehiago badira.

Iraupen guztia kontutan hartuta, ia 1.500.000 euroko lizitazio batetaz ari direla azpimarratu du.

Jarraian, aurkeztutako proposamenak nola baloratuko diren azaldu du.

Josune Urkolak adierazi du beraiek abstenitu egingo direla koherentziagatik, beraiek aspalditik ari direla dio herrian eskola publikoa eskatzen.

Alkateak adierazi dio Josuneri arraroa egiten zaiola erabili duen argudioa, hau zerbitzu publiko bat baita.

Josune Urkolak zehaztu du beraiek eskatzen dutena Eusko Jaurlaritzak kudeatutako zerbitzu publikoa dela, hau da, Haur Eskolak Partzuergoa sarearen barruan egon beharko lukeela.

Batzarkideek, Hezkuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

“Espediente zkia: ID.05/2021-0046

Kontratuaren gaia helburua:

Usurbilgo udaleko haur eskola zerbitzuaren emakida.

Zerbitzua kontratatzearen beharra edo egokitasuna:

Kontratu honen helburua hau da: Usurbilgo udalerrian, haur eskolako udal zerbitzuaren (hezkuntza zerbitzua, 0-3 urte bitartekoa, haur hezkuntzako 1.zikloa) ustiapena esleitzeko, prozedura irekia arautu behar duten baldintza teknikoak xedatzea; jarduera hori, bere gain hartzen du Udalak propio bezala. Gizarte eta hezkuntza zerbitzua da, emakida bidez, eta eskolaurreko hezkuntza emateko. Horretarako, pedagogia teknikarik egokienak baliatuko dira eta haurraren kultura eremuan kokatuko da. Haur Eskolaren eskumenaren inguruko aipamenak txosten ekonomikoan jasota daude. Une honetan Usurbilgo Udalak ez du zerbitzu hau emateko baliabide propiorik.

Kontratu mota:

Zerbitzu emakida kontratua.

Prozedurari dagokionez

Espediente-mota:

Ohiko tramitazioa du.



Usurbilgo Udala

Esleipena egiteko bidea eta modua:

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak jasotako prozedura ireki bidez.

Baldintza Orriak:

Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen eta Baldintza Teknikoen Orriak doaz.

Araudi aplikagarria:

1. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea -SPKL 2017-
2. -Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra - HAKLEO- onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua

Txostenak:

- Idazkariaren lege txostena.
- Kontuhartzaileak eginiko proiektuaren bideragarritasun txostena.
- Zerbitzuaren txostena.

Kontratua esleitzeko eskuduntza:

9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarrian xedatutakoa ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Udalbatza Plenoa, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtsio arruntetik %10etik gorakoa denez.

Guzti hau ikusirik, Hezkuntza Batzordeak, 2021eko martxoaren 18an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Itziar Basterrika eta Patxi Suarezen aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengoz egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:


ERABAKIA

LEHENA: Prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Usurbilgo Haur Eskola zerbitzu-emakidaz kontratatzeko espedienteari onespina ematea.

BIGARRENA: Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespina ematea.

HIRUGARRENA: 2021 urteko aurrekontuan 232.260 euroko gastua onartzea 1.5200.227.326.00.04.2021 kontu-sailaren kontura.

LAUGARRENA: Alkateari honako eskumen eskuordetzea egitea:



Usurbilgo Udala

- Eskaintza onenaren izendapena eta lizitatzailer honi egin beharreko errekerimendua, behin agiriak jaso ondoren Udalbatzari esleipen proposamena bideratuz.
- Izapidetza arrunteko beste edozein eskumen osagarri.

BOSGARRENA: Lizitazioa udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

7.- MOZIOA: UDALEN ESKU DAUDEN OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ZENTROAK INDARTZEKO NEURRIAK HARTZEARI BURUZKOA.

Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu. Urte dextente direla dio Usurbilgo Udalak, beste hainbat udal bezala, Oinarrizko Lanbide Heziketaren kudeaketa eramaten duela, nahiz eta eskuduntza Hezkuntza sailarena izan.

Eskuduntza hori ematen zuen dekretua pandemia garaian amaitzen zela esan du, baina lanketa egin ezinenez, pleno honetatik pasa zutela dio urtebeteko luzapenaren onarpena.

Momentu honetan urtebeteko luzapen hori amaitzen ari dela dio eta Hezkuntza sailean dekretua lantzen ari direla hurrengo 5 urtetarako eskuduntza hori gaur egungo formatuan luzatu ahal izateko.

Oinarrizko Lanbide Heziketako helburu nagusiak ikasleen garapen pertsonala eta profesionala direla, baina horrek ezinbestean integrazio soziala eta ikasketen prozesua berreskuratu eta ahal dela etorkizun batean lan-munduan sartzeko bitartekoak eskaintzea dakarrela esan du. Helburu hauek lortzeko zoritxarrez Udalek hainbat bitarteko ekonomiko gehigarri jarri behar izaten dituztela eta horiek gabe ezingo liritekeela helburu guzti horiek lortu azpimarratu du.

Testuinguru hau ikusita eta ulertuta momentua dela lantzen ari diren dekretu horri ekarpenak egiteko, hainbat eskaera egin nahi dituztela esan du, mozioan zehazten direnak, hain zuzen ere.

Josune Urkolak adierazi du beraiek abstenitu egingo direla, Beñatek berak aipatu duen bezala hemen aipatzen diren gauzak lanketa prozesuan daudelako, oraindik dekretua bera ere ez dela behin betikoa gaineratu du.



Usurbilgo Udala

Beñat Larrañagak esan du berak aipatu duela hobekuntza batzuk egiteko asmoa badagoela, baina hemen aipatzen direnak momentuz hobekuntza bezala ez direla planteatzen.

Batzarkideek, Hezkuntza batzordean tratatu zen mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“ZIOA

Oinarrizko Lanbide Heziketa zenbait zentro egun oraindik udalen kudeaketaren esku daude. Ikastetxe hauek, Hezkuntza Saileko, Lanbide Hezkuntzako Sailburu ordetzaren menpekoak izan arren, udalek kudeatzen dituzte eginkizunen eskuordetza baten bidez.

Momentu honetan, hurrengo 5 urteetan zerbitzu honen kudeaketa arautzen duen dekretua lantzen ari da Saila udalerriekin batera. Hori horrela, momentu egokia da Oinarrizko Lanbide Heziketaren oinarriak sendotzeko.

Oinarrizko Lanbide Heziketak ikaslearen garapen pertsonal eta profesionala izan behar ditu helburu. Horrela, ezinbestean integrazio soziala lortzea, ikaste prozesua berreskuratzea eta lan munduan sartzeko bitartekoak eskaini behar dizkie ikasleei.


Hala ere, aipatu helburu hauek lortzeko udalek bitarteko ekonomikoak izatea beharrezkoa da. Finean, bitarteko hauei esker eskaini ahalko dituzte kalitatezko hezkuntza prozesuak.

Guzti hau oinarri, udal honek, Hezkuntza Sailari eskatzen dio,

1. Udalen bidez kudeatzen den Oinarrizko Lanbide Heziketa indartzeko konpromisoa har dezala.
2. Indartze hori gauzatzeko udalei egiten zaien ekarpen ekonomikoa handitzeko konpromisoa har dezala, kalitatezko zerbitzua helburu.
3. Gizarteratzean laguntzeko lanpostua finantzatzeko konpromisoa har dezala.
4. Inbertsioak egiteko finantzazio lerro berri bat sortzeko konpromisoa har dezala.
5. Udalen esku dauden, Oinarrizko Lanbide Heziketan lan egiten duten profesionalen erakunde publikoko langile izaki, hauen lan esperientzia, lanbide heziketako zentro publikoetako berdina izatea garapen profesionalen lagungarri izan dadin konpromisoa har dezala.
6. Udalak, mozio honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Hezkuntza batzordeko kideei emango die.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.



Usurbilgo Udala

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

8.- GALDERA-ESKAERAK.

Patxi Suárezek aipatu du proposamen bat duela. Udal honetan zinegotzi dagoenetik parte-hartze prozesu ugari ikusi dituela esan du eta hori ondo iruditzen zaiola aipatu du, herritarrak oso ondo antolatzen baitira herrian. Udalaren aldetik prozesu asko sustatu eta antolatzen direla eta hori balioan jarri nahi izan du.

Proposatzen duena da auzo aholku batzar bat antolatzea. Bilera periodikoak izatea proposatzen du, urtean behin edo bitan. Oso garrantzitsua izango litzatekeela dio auzo elkarteekin kontatzea eta baita herriko beste elkarteekin ere. Helburua izango luke kexak jasotzea, udalaren adierazpenak edo erantzunak ematea. Ordenantza berriaren bitartez egin ahalko litzatekeela esan du.

Alkateak erantzun dio ideia hori justu beraien legealdiko planean jasota dagoela, izan ere beraienez garrantzitsua baita auzoekin harreman iraunkor bat izatea. Urtero udal aurrekontuak lantzen dituztenean, aurrekontu proposamena auzoz-auzo aurkezten dutela esan du.

Aipatu duen bezala, beraien legealdiko planean jasota dago Udala eta auzoen arteko harremana ea nola modu iraunkor batean egituratu eta egonkortu beharko luketen, hala ere ez dakiela dio aholku batzar bat izan behar duen edo ez. Kontua da horretara iristeko ikusten zutela aurrena auzoz-auzo prozesuak egin behar zituztela hau posible izan dadin, izan ere auzoen artean antolaketari dagokionean desberdintasunak baitaude, batzuetan auzo elkarteak daude eta beste batzuetan ez. Jarraitu du esanez Udalak orain arte egin duena izan dela auzo bakoitzean hazia erein gero hortik auzo elkarteak sortzeko, ondoren auzo elkarte horietako ordezkariak izango direlarik interlokutore lanak egingo dituztenak.

Beraz, momentu honetan horretan ari direla esan du. Gero, behin auzo elkarteak eratuta, auzo elkarte guztiekin prozesu bat egin nahiko luketela esan du, auzoen eta Udalaren arteko harreman hori nola egituratzen den ikusteko.

Patxi Suárezek gaineratu du auzo aholku batzar hori sortu arren auzoz auzo lana egin beharko dela.

Publikotik Iñigo Villafafila herritarrak hitza hartu nahi duela adierazi du eta alkateak hitza eman dio.



Usurbilgo Udala

Iñigo Villafafilak esan du haserre dagoela bi gai desberdinengatik.

Batetik, bi seme-alaba dituela esan du eta hauek txikiak zirenetik hezkuntza publikoaren aldeko hautua egin dutela. Bere haurrak bi urte zituztenetik Landaberrira eraman dituztela esan du. Gustora daudela eta han jarraitzen dutela baina beraien kezka edo haserrea dela dio Usurbilgo herriak ez duela kontutan hartzen eta era batean zigortu egiten dituztela Udarregi ikastolatik kanpora ikasten duten haurrak. Honen adibide garbiena dela dio eskola kirola egiteko garaian ordutegiek ez dutela koinziditzen. Bere seme-alabak igeriketara ekartzeko astearte eta ostegunetan hauen bila Zubietara joan behar duela salatu du.

Alkateak erantzun dio asko eskertzen diola gai hau plenora ekartzea eta Beñatek berak baino hobeto erantzungo diola, baina justu eskola kirolaren eta eskolaz kanpoko jarduera guztien antolakuntza egiten denean oso presente daukaten gauza bat izaten dela esan du ez izatea soilik ikastolako umeen ordutegien araberakoa. Duela bi urte Zirimara hasi zenean, gai hau oso presente egon zela azpimarratu du, are gehiago, Zirimara ez dela soilik kaxkoan egiten auzoetan ere egiten dela esan du, Aginagan eta Zubietan kasu.

Hasieratik kezkatzen dituen gai bat dela esan du, eta nahiz eta Usurbildik kanpo ikasi ume horiek beraien eskolaz kanpoko jarduerak Usurbilen egiteko borondatea dutela azpimarratu du.

Beñat Larrañagak hitza hartu du eta berak ere eskerrak eman dizkio gai hau plenora ekartzeagatik. Azken urteetan bereziki arreta jartzen ari direla eta udaleko teknikari ezberdinekin gaia lantzen ari direla esan du.


Zirimara hasi zenean ere Landaberrira eskuorriak eraman zirela esan du egitasmoaren berri emateko eta sarrera malgutasuna ezarri zela beste eskoletako haurrak ere etor zitezten.

Era berean, jarduerak kaskotik atera eta eskaintza beste auzoetara zabaldu zela esan du bertako haurrek ere parte hartzeko aukera izan zezaten.

Iñigo Villafafilak adierazi du ez dela lortu, bera kirol teknikariarekin hizketan egon zela esan du eta azalpenak eman zizkiola baina argi ikusi dela dio ez dela asmatu.

Beñat Larrañagak adierazi du Landaberrik duen antolaketarengatik helburua adin batzuetan bakarrik lortzen zutela esan du, oker ez badago, autobusak bi txanda egiten zituen eta lehenengo txandakoak iritsi zitezkeen baina bigarren txandakoak ez.

Beñat Larrañagak gaineratu du Zirimarako mahai tekniko horretan Zirimarako jarduera horretatik haratago ausnartzen saiatzen direla, eta kontziente direla herri honetan badagoela kolektibo bat herritik kanpo ikasten duena eta iruditzen zaiela eskola kirola dela tresna interesgarri bat haur horiek herrian beste hurrekin batera integratu daitezten modu natural batean.



Usurbilgo Udala

Iñigo Villafafilak esan du hori ez dela horrela, zeren planteatzen duten bezala horrek esan nahi du ume horiek desberdinak direla.

Beñat Larrañagak esan du Usurbildik kanpo ikasten duten haur eta gazteengan arreta jarrita dutela, hobetzeko bideak badaudela eta mahai gainean jartzea eskertzen dela.

Ondoren, Iñigo Villafafilak bigarren gaia jarri du mahai gainean, Txaramunto kalea, aparkalekuak, isunak. Gainera azterketa bat eginda, Txaramunto kalean 60 aparkaleku daudela esan du eta ezinduentzako beste bi aparkaleku, eta 146 etxebizitza inguru. Udaltzain batekin hizketan egon zela esan du eta honek esan omen zion proposamen bat egin zutela aparkalekuetan aldaketa txiki batzuk eginda 12 plaza gehitzeko, aukera bazegoela gastu gehiegi egin gabe.

Lur Etxeberriak esan du legegintzaldi hasieran udaltzainek jakinarazi zuela Usurbilen aparkaleku arazo handienetarikoa bat Txaramunto kalean zegoela. Plano gainean azterketa batzuk eginda ikusi zuten plaza batzuk atera zitezkeela, baina bertara joan eta ikusi zutena izan zen kalea planoetan agertzen zena baino estuagoa zela. Hala ere, gai horrekin jarraitzen dutela zehaztu du.

Iñigo Villafafilak adierazi du Txaramunto kaleak hartzen dituela Txaramunto bertako jendea, Kale Nagusikoak, Euskaltegikoak, Musika Eskolak, eta bere ustez Udalak esfortzu handi bat egin beharko luke kale hori hobetzeko eta behin hobetzen denean gaizki aparkatuta daudenei isunak jarri.

Alkateak adierazi du kontziente direla kale horretan dagoen arazoaz eta asmoa badela soluzio bat topatzea.

Iñigo Villafafilak galdetu du kuriositatez jakin nahiko lukeela zebrabide bat egitea erabakitzen denean, nork erabakitzen duen zebrabide hori nola egin, zeren Usurbilen zebrabide ilegalak asko daudela esan du .

Lur Etxeberriak erantzun dio ikuspegi kontua dela, gure filosofia gehiago dela dio praktikotasuna eta benetan jendeak erabiltzen duena. Halere, Iñigori galdetu dio ea zebrabide zehatz batzuek ari ote den.

Iñigo Villafafilak adierazi du orokorrean ari dela, zebrabide elebatuak deitzen direnak adibidez, denak gaizki daudela esan du.



Usurbilgo Udala

Alkateak esan dio Iñigori benetan eskertzen diola pleno honetara etorri izana eta ekarpenak egitea benetan eskertzen dutela, baina azken gai honen modukoetan idatzi bat aurkeztu dezakeela edo bilera bat eskatu, horretan ez dagoela arazorik.

Iñigo Villafafilak horrela egingo duela adierazi du.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:09etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.